

MAMI LEBRUN

SINOPSISIA

MAMI LEBRUN

Egoitz eta Miren amona Kontxa hil berriaren omenaldia prestatzen ari dira. Amonaren etxeko ganbaran aurkitutako eguneroko batzuetan oinarrituko dira, Kontxak gaztetan Pariseko Cabaret batean bizitakoak kontatzeko. Horixe izango da omenaldiaren ardatza. Hala ere, Mireni kontatu ez dion sekretu bat dauka Egoitzek...

MAMI LEBRUN

GAI NAGUSIAK

MEMORIA

Nola mantendu behar da maite genuen norbaiten memoria? Modu bakarra dago?



IRAGANA

Askotan ahaztu egiten zaigu gure amaren, amonaren, aitaren... atzean, pertsonak daudela, gu geu bezala, eta denek izan dutela norik bere bizitza propio eta partikularra.

HERIOTZA

Dolua, familiako belaunaldi baten desagertzea, maite ditgunei agur esaten jakitea...

MAMI LEBRUN

EZAUGARRIAK

MUSIKA ZUZENEAN

Obraren zati bat **II. Mundu Gerrako** Pariseko klub batean kokatuta egonda, garaiko **kantuak** entzun ahal izango dira. Edith Piaf, Kurt Weill eta Mistinguetten abestiak besteak beste.

EUSKALKIAK

Euskalkiak izango dira **pertsonai ezberdinak bereizteko harraminta nagusia**. Euskara batua eta bizkaiera batuaz gain, lapurtera eta Debagoieneko euskalkia ere entzun ahal izango dira antzezlanean zehar.

JATORRIZKO GIDOIA

Antzerki lan honek **Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren** diru laguntza jaso zuen bai testuaren idazketarako eta baita produkziorako ere.

MAMI LEBRUN

ZUZENDARIA

Getari Etxegaraik Donostiako Arte Eszenikoen Tailerrean, TAEn, hasi zituen bere antzerki ikasketak 1996an eta ondoren beste hiru urte egin zituen Bilboko Artebi eskolan. 2003tik 2006ra hain zuzen. Horretaz aparte, FTIk (Fabrica de Teatro Imaginario) antolatutako nazioarteko topaketetan ere parte hartu zuen 2004 eta 2005 urteetan.

Antzerkian, telebistan eta zineman aktore bezala lan ugari eginikoa da. Mugaldekoak, Mi querido Klikowsky, Los Serrano eta Kuxkuxeroak saioetan, besteak beste, telebistan; Las Inalambricas, Historias Terraterrestres, Nacidos Culpables eta Orquesta de señoritas antzerkian eta Yoyes eta 83ko uholdeak zineman. Ttanttaka, Vaiven, Globomedia edota Pausoka bezelako antzerki eta telebista ekoiztetxeentzat lan egin du.

Gaztea izan arren, zuzendaritzan ere eskarmentua dauka. Ramon Barearen Esencia Patria antzezlanean zuzendari laguntzaile ibili zen, eta azken urteotan El Cubo, Amor Vandálico

eta Planetamiento, Nudo, Desenlace moduko produkzioetan zuzendari lanak egin ditu.

Hainbat sari irabazitakoa da. 2001ean Aktore berri onenaren saria eman zion Euskal Aktoreen Batasunak. Bilboko Udalak ematen dituen eskolarteko antzerki sarietan ere behin baino gehiagotan saritu dituzte



MAMI LEBRUN

TALDE ARTISTIKOA



ANE PIKAZA

Aktorea, Arte Ederretan Lizentziatua (EHU) eta Musika, Arte Eszeniko eta Ikus-Arteetako Bilboko Eskolan Diplomatu (ARTEBI); EHUan **Antzerki eta Arte Eszenikoetan espezializazioa** egin du eta baita Gaitasun Pedagogikoko Agiria ere. Arte eszenikoetan bere ibilbidea dantzan hasiko da, ballet klasikoan, jazz eta dantza garaikidean trebatzen delarik. Nazioarteko irakasle ugari ageri dira bere ibilbidean, hala nola, **Wendell Wells, Augusto Omolú, Antonio Fava, Roberto Romei o The SITI Company** (New York, BECA KREA 2011).

Ikus-entzunezko alorrean **Goenkale** telesailan lan egindakoa da.

Antzerkian berriz, **Decir lluvia y que llueva** Euskal Herriko ekoizpenik onenaren Ercilla saria (2011) irabazitako obran lan egindakoa da. Azken urtean Patxo Telleriak idatzi eta zuzendutako **Tres tristes tigras** antzezlan laburrean, TXALO produktzioa **Mollie Mallonen istorio sinestezina** eta HIKA Teatroaren **Hitzak** antzezlanetan aritu da. 2009tik KABIA ikerketa laborategiko partaidea izaten jarraitzen du.



KEPA ERRASTI

Kaztearitzan lizentziatu bazen ere (2005), aktore eta gidoilari moduan lan egin du azken hamar urteotan. **Donostiako Arte Eszenikoen Tailerrean** ikasi eta hainbat interpretazio ikastaro egin ondoren, telebista eta antzerkian aritu da batez ere.

Aktore bezala parte hartu duen antzerki lanen artean daude POKen **Ni ez naiz Txotxolo eta Amamaren Memoria** eta Vaiven antzerki konpainiaren **Lotsagabe, Terapiak eta New Orleansko Cyrano**.

Telebistan berriz **Goenkale** (2005-2009) eta **Bi eta Bat** (2013) telesailetan, besteak beste.

Azken urteotan zineman ere aritu da **Loreak** eta **Lasa eta Zabala** bezalako pelikuletan.

Kazetaritzan lizentziatua izanik, gidoilari bezala ere jorratu du bere ibilbide profesionala. Goenkalen bertan 5 urtez aritu zen elkarrizketak egiten. Produktzio etxe berak antzerkirako sortu zuen **Kondesaren erretratua** antzerki obra ere berak idatzi zuen Jokin Oregirekin batera.

Azken aldian, zinemagile bezala ere atera ditu aurrera pare bat proiektu.



AINARA ORTEGA

Ume umetatik bizi izan du musika eta hemezortzi urtekin bibolin irakasle titulua atera zuen.

Hemeretzirekin **Mac Jeara's Band** taldeko ahots bezala hasi zuen bere ibilbidea eta ehundaka kontzertu eskaini zituzten lau urtean. 2006an **jazz abeslari moduan lizentziatu zen Musikenen** ohorezko kalifikaizoa lortuz.

Urtea askoan Zauautzeko Nazioarteko Jazz Seminarioan parte hartu zuen, **Sheila Jordan, Bob Stoloff, Oriol Saña edota Carmen Canela** bezalako irakasleen eskolak jasoaz.

Dantza eta antzerkiarekiko duen interesari esker, hainbat antzerki eta dantza ikastaro egin ditu eta obra bat baino gehiagotan ikusi ahal izan dugu azken urteotan. Besteak beste, Vaiven antzerki konpainiaren, **Las Inalambricas, El Club de las mujeres invisibles, New Orleansko Cyrano** edota Ttanttakaren **Kafka eta panpina bidaiara lanetan**.

Itzi Salvador musikoaarekin hainbat proiektutan parte hartu du. **Kantagin jazz** eta **Te doy una canción** dira horietako batzuk. 2015ean bere lehen diska atera du bakarlari moduan: **Scat**.

MAMI LEBRUN

FITXA TEKNIKO-ARTISTIKOA

KONTXA/MIREN

ANE PIKAZA

MITXEL/EGOITZ

KEPA ERRASTI

AMONAREN MAMUA

AINARA ORTEGA

ZUZENDARIA

GETARI ETXEGARAI

ZUZENDARI LAGUNTZAILEA

XABIER ORMAZABAL

GIDOIA

KEPA ERRASTI

ARGIZTAPENA

DAVID ALCORTA

ESZENOGRAFIA

ESKENITEK

JANTZIAK

LAN TALDEA

MUSIKA ETA MOLDAKETAK

PASCAL GAIGNE

EKOIZPENA ETA
BANAKETA

XAKE PRODUKZIOAK

xakeprodukzioak@gmail.com